



BIGA ENKANTEA EGINGO DUTE FERIALEKUAN

Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu dute biga enkantea; bihar, 46 abelburu jarriko dira salgai > 2

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2010-03-12**

VIII. URTEA 1950. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Emakumeen Mundu Martxaren lekukoa arraunlariak ekarri dute

TOLOSA Euskal Herria zeharkatzen ari den Mundu Martxa atzo iritsi zen; gaur, 20:30ean, Leitzara helduko da

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA Tolosaldean eta Leitzaldean oraindik ekitaldi ugari ospatuko dituzte 4-5



Tolosaldeko emakume arraunlariak eraman dute Emakumeen Mundu Martxaren lekukoa Zerkausira. A. IMAZ



Herenegun egin zuten aurkezpena Topagunean. I. TERRADILLOS

600 lagun bilduko ditu Gipuzkoa Encounterrek

TOLOSA Ekimena laugarren urtez antolatu du Udalak; hilaren 19, 20 eta 21ean izango da 3

Adostasunik ezean greba gehiago egingo dituzte

HEZKUNTZA Eskola publikoetako jangeletako langileek 11. greba eguna burutu zuten atzokoan 6



Villabonako Fleming eskolako jangela hutsik. E. MAIZ

Tolosako eta Ibarako gazteen independentzi deia

GIZARTEA Bihar, egun osoan zehar, jardunaldi independentistak burutuko dituzte gazteek 6

'Euskal Herriko azken lamia' Topic-era dator asteburuan

Kultura » Encarni Genuaren gidaritzapean, Txotxongilo taldeak bere lanik ospatsuena taularatuko du Tolosan.

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko azken laminak Tolosa bisitatuko du asteburu honetan. Topic, Txotxongiloen Nazioarteko zentroan izango da bihar 18:00etatik aurrera, eta etzi, 12:30ean. Txotxongilo taldearen lan arrakastatsuenetakoa da *Erreka Mari Euskal Herriko azken lamia* eta Euskal Herrian nahiz honen mugetatik kanpo urtetan eskaini duen haurrentzako txotxongilo saioa da. Sarrerak Topic-eko leihatilan emanaldiak hasi baino ordu erdi lehenago eskuratu daitezke, helduenak 7 eurotan, eta haurrenak 3,50ean. Honez gain, Kutxaren ohiko bideetan ere erosi ahal izango dira.

Enkarni Genua eta Manolo Gomez txotxongilolariekin batera, Lara Mitxelena eta Ixiar Jauregi-



'Erreka Mari Euskal Herriko azken lamia' emanaldiaren zati bat. HITZA

ren txalaparta doinuak izango dira saioan. Euskal mitologiako pertsonaia ezaguna da lamina. Baina ezberdina izate hutsagatik baztertu egiten dute herritarrek. Testu-inguru horretan bizi dute Erreka Mari eta Martinek haien maitasun istorioa. Zailtasunez beteriko maitasun istorioa, umorez eta sarmtasunez kontatuta.

Ibilbide luzea du Txotxongilo taldeak. Ibilbide horretan bi izan ditu ezaugarri nagusiak: ikuskizu-

naren estetika zaindua eta haien ikusleekiko, 3-10 urteko haurreko, begirunea. Asko izan dira antzeztu dituzten lanak, baina, zalan-tzarik gabe, Erreka Mari da arrakastatsuenak.

Urteek aurrera egin arren, haurrek gertutik sentitzen duten istorioa da, haurren ongi ulertzen dituzten gaiak lantzen dituelako: maitasuna, ingurunea zaintzea eta besteekiko errespetua.

Bihar Ferialekuan, Biga Enkantea



46 abelburu aterako dira salmentara; horietatik 18, eskualdekoak. E. EZEIZA

ERREDAKZIOA

Ganaduzaleek Ferialekuan dute hitzordua bihar goizean. Bertan ospatuko da 11:00etatik aurrera, Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Biga Enkantea. Lau arrazatako 46 abelburu jarriko dira salgai.

Hamar ukulutatik eramango dituzte abereak Ferialekura. 46 buru izango dira denera: bi txaroles arrazakoak, 8 blondak, 11 pirenaiak eta 25 limousinak. Hori-tatik 18 eskualdekoak izango dira: bi txaroles eta sei pirenaiak Bidegoangoak eta 10 limousin Tolosakoak.

Biharkoan, frisoiak ernai dau-den bigak izango dira, eta gainontzeko arrazetakoak berriz, zortzi hilabetetik gorakoak. Erosleentzat

zenbait laguntza emango dituzte. Hasteko frisoi arrazakoentzat, 210 euro. Haragikoen kasuan berriz, 8-12 hilabete bitartekoentzat, 150 euro emango dituzte; 12-18 hilabete artekoentzat 180 eta 18 hilabete-tik gorakoentzat, 210.

Foru Aldundiko ordezkariak azaldutakoaren arabera, aurten enkantera aterako diren abereen kopurua aurreko urteetakoan antzekoa izango da. Hala ere, argi dute krisi ekonomikoa sektore guztietara zabaldu dela, baita abeltzaintzara ere. Hori dela eta, «merkatua gaizki» dagoela diote. Enkantera ateratzeko baserriarrak dira hasierako prezioa jartzen dutenak. Biharkoan, prezio baxuena duen burua 1.200 eurotan aterako da, eta garestiena 2.700 eurotan.



Liburuak entzuten eta barneratzen

KULTURA » Iñaki Carretero ipuin kontalaria Amarotzen izan zen atzo haurrei liburuak irakurtzen. Ahoz Aho Jaialdiaren baitan, emanaldi ugari izan ziren atzo egun guztian zehar, eta horietako bat izan zen arabarrare-

na. Gaur beste hainbat saio izango dira. Alde batetik, Amarotzen bertan, Ixabel Milleten saioa izango da 19:30ean, eta ordu bat beranduago Leidor antzokian, Gabino Diego. E. EZEIZA

Zortzi autoetan lapurreta egin dute

Gertaerak » Kristalak apurtuta zituztela agertu ziren atzo goizean kotxeak Batxiller Zaldibia kalean eta Iurreamendi ibilbidean.

ERREDAKZIOA

Ostegun goizaldean Batxiller Zaldibia kalean eta Iurreamendi ibilbidean zortzi auto eraso zituzten. Ertzaintzak azaldutakoaren ara-

bera, kopolotuaren aldeko leihoa apurtua zuten batzuek, eta beste batzuek aurrealdeko kristala.

Atzo, goizean, 08:00ak inguruan egin zioten lehendabiziko jakinarazpena Ertzaintzari. Gero, egunean zehar apurtutako kotxeen jabeak salaketak jarri joan ziren Tolosako polizia-etxean. Orain, ikertzen ari dira zein izan daitekeen erasoen egilea eta aztertzen, zenbaterainokoak diren kalteak.

elduain
taberna-jatetxea

Eguneko menuak
Astebukaeraren menu bereziak
Plater konbinatuak
Ogitarteak

Elduain hirigunea, 1
30493 ELDUAIN (Gipuzkoa)
Tel. 943 68 33 27

Tolosaldeko komunikabide batek
**Kazetaritza edota
Euskal Filologian**
lizentziatuak
edo ikasleak behar ditu
lan poltsa osatzeko.

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a **tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info** helbidera



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

600 lagunek hartuko dute parte informatikarien festan

Gizartea » Hilaren 19, 20 eta 21ean izango da Usabal kiroldegian Gipuzkoa Encounter; herrira zabaldu nahi dute aurten ekimena.

INIGO TERRADILLOS

Informatikaren jaia hartuko du laugarren urtez Usabal kiroldegiak datorren asteburuan, hilaren 19, 20 eta 21ean. Tolosako Udalak Euskaltel Fundazioa, Spri, Kutxa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzarekin batera antolatzen duen Gipuzkoa Encounter topaketak 600 lagun inguru bilduko ditu, eta azken teknologia erabiliz informatikaren inguruko alor ugari jorratuko dituzte.

450 ordenagailu baino gehiago jarriko dituzte kiroldegian, eta parte-hartzaileek «inoiz inon izan den abiadura handienaz» gozatzeko aukera izango dute, 1.000 mega inguru, hain zuzen. Adin guztiei zuzenduriko egitarau zabala izango da hiru egunetan: hala nola, bideojokoan, arte digitalaren, hardware-aren eta software-aren inguruko jarduerak egongo dira, informatikaren munduarekin erlazioa duten gai ei buruzko hitzaldiak eta tailerrak, eta beste hainbat ekintza ere bai.

Herri guztira zabaldu

Gaszte Topagunean herenegun egin zuten aurkezpenean Jokin Bildarratz Tolosako alkateak azpimarratu zuen sendoturiko ekimena dela Gipuzkoa Encounter, eta parte-hartzaileengandik «oso harriera eta balorazio ona» izaten duela urtez urte. Bere esanetan, «topaketak eskaintzen duen balia-bide eta teknologiarengatik eta Usabal kiroldegiak dituen zerbitzuengatik» da hori.

Bestalde, aurtengoan «esfortzu berezia» egingo dute Usabalen izango den topaketa herrira ateratzeko. «Horretarako, GKO galeriak eta Lanbide Heziketa Institutuko partaidetza izango dugu, eta gaszte lokaletara ere iristea da gure nahia», gehitu zuen Bildarratzek.



Herenegun egin zuten Gipuzkoa Encounterren aurkezpena Topagunean. I.T.

» DATUAK

- **Ekimena.** Gipuzkoa Encounter.
- **Non eta noiz.** Tolosako Usabal kiroldegian, hilaren 19, 20 eta 21ean.
- **Parte-hartzaileak.** 600 lagun inguru izango dira, eta 450 ordenagailu baino gehiago.

GKO galeriakoen kasuan, euren ekimenez bideo-chat-a jarriko dute. Usabal kiroldegian Gipuzkoa Encounterren parte hartzen ari direnen eta bertatik at dauden artean sortu nahi dute hartu-eman. Horretarako, herriko lau puntutan (Triangulo plazan eta Topagunean eta Kikara eta Meskal tabernetan) kabinak jarriko dituzte ordenagailuekin. Hilaren 20an eta 21ean egingo dute hori.

Gasztaria eta berdintasuna

Tolosaldeko Lanbide Heziketa Institutuko ikasleek ere hartuko dute parte topaketan lehen aldiz. Hain zuzen ere, 10 ikasle muntaketan ariko dira, eta beste 10 antolakuntzan. Joselu Andueza gasztaria zinegotziak azaltzen duenez, ekimena kalera ateratzeaz gain, «beste erronka herriko gazteek ere parte hartzea da». Horregatik, Usabal kiroldegiko sarreran 20 kontsola jarriko dituzte eta edonork edozein unetan parte hartu ahaliko du. Bideojokoez gain, beste hainbat ekimen ere jarriko dituzte

- **Ezaugarriak.** 1.000 megako abiaduraz gozatzeko aukera izango dute. Bideojokoak, arte digitala edota software eta hardware-aren inguruko jarduerak eta informatikarekin loturiko hitzaldi eta tailerrak izango dira.

gaszteak topaketara gerturatzeko helburuz.

Gasztariaz gain, berdintasunaren gaia ere jorratu nahi dute Gipuzkoa Encounter jaiarekin. «Oraindik ere emakumeen parte-hartzea askoz ere baxuagoa da, eta horregatik, hori aldatzeko xedearrekin, nola erakarri emakumezkoak aztertzen ari gara», azaldu zuen Bildarratzek ekimenaren aurkezpenean.

Sabino San Vicente Gipuzkoa Encounterreko arduradun nagusia ere izan zen herenegungo aurkezpenean. Tolosako topaketak denbora gutxian «ospea» hartu duela esan zuen, eta horren adierazle da segituan gainditu dutela parte-hartzaileen aurtengo muga. Abiadura oso azkarraz gozatzeko gain, bestelako abantailak ere izango direla aurten adierazi zuen. Halaber, Tolosako Udalaren inplikazioa eskertu zuen, «duela lau urte Gipuzkoa Encounter antolatzearen aldeko apustua egin zuelako, eta horregatik iritsi delako topaketa hau egun dena izatera».

Laburrak

Tolosako Musika Banda Hernanikoarekin anaituta

KULTURA » Tolosako Musika Bandak emanaldia eskainiko du bihar Hernanin. Horren aurretik, ordea, bertako musika bandarekin anaituko da. Kalejira ekitaldiaren ostean egingo dute, 18:30ak aldera, herriko alde zaharrean, eta ondoren, 19:30ean, kontzertua eskainiko dute Hernaniko udaletxearen arkupeetan. Emanaldia amaitzean, bi musika bandetako kideak elkarrekin joango dira afaletzera sargardotegi batera.

Bertso afaria egingo dute gaur, Mozanbikeren alde

KULTURA » Hirukideko Gurasoen Euskara Batzordeak antolatuta, bertso-afaria izango da gaur, lurre elkartearen. Lortutako diruaren zati bat, Mozanbikera bideratuko dute.

Gaur ez da Betis taldearen entrenamendurik izango

KIROLA » Betis futbol taldeak Bera-zubiko zelaian entrenatu behar zuten gaur, baina azkenean bertan behar geratu dela jakinarazi dute.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipintza baserria - Savito Zaharra www.rezolasagardotegia.com

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.akelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergoibatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserria, Martxene postakaldea, 139

Mina Tel.: 943 555 220 Astigarraga
Txerrikieta postakaldea

Gartziategi Tel.: 943 469 674 Astigarraga
Donostia Astigarraga bidea, 5,8km. www.gartziategi.com

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urmieta
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre-Gain baserria, Ereflor auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Osiñaga auzoa

Iparragirre Tel.: 943 550 328 Hernani
Osiñaga auzoa, 10 www.iparragirre.com

Urdaira Tel.: 943 372 691 Agnaga-Urtebil
Urdaira baserria

Arratzain Tel.: 943 366 663 Arratzain zahar baserria Urdabil
www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com

Urbirtarte Tel.: 943 180 119 Ataun
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zeran
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegi.com isastegi@isastegi.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Ibaiztegieta
Ibaiztegi baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Aduna
Garagartza baserria (Goberu auzoa) www.zabala.com info@zabala.com

Sarasola Tel.: 943 690 283 Asteasu
Bebalera auzoa

Ola Tel.: 943 623 130 Iruen
Mezka auzoa, 102

Lindurrenborda Tel.: 948 637 212 Lesaka
Nabaz auzoa, 8

DIEZ Autobusak

Autobusak eta autobusen zerbitzu berezia
Mota eta zerbitzu berezia
Auzoak, herriak, herriak, herriak, herriak...

Munduko helburua, 24 | Tel.: 943 28 84 18 | Fax: 943 27 11 37 / 20012 DONOSTIA
Posta elektronikoa: molaia@autocaresdiez.net

Guk,
La Salle Berrozpe,
eta Zuk?

Ate Irekiak - Batxilergoa
Martxoak 16. 16:30 - 19:30

La Salle Berrozpe
LSAB
Auzoan

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira antolaturiko ekimenek eta aldarrikapenek gorpuztu dute astea Tolosaldean eta Leitzaldean.

Iritsi da Mundu Martxa

AGERIAKAZ

Emakumeen Mundu Martxa atzo iritsi zen Tolosara. Hiru hilaren 18a, munduko da Emakumearen Nazioarteko Egunaren eguna.

Lekuko emakume arraunlariak jaso zuten eta haiek Orain barrera, Zerkausira eraman zituen. Bertan burutu zen ekitaldi nagusia. Hitzaldiaren ondoren emakume berritarrek eramanako jakak dastatzeko aukera edukiratu zuten Zerkausin hitaldakoak. Ekitaldiari amaiera emateko, Zarrik emakumea abestu zuen.

Mundu Martxako furgonetak Donostiarako bidea hartu zuten eta atzoko Ibilbidea Ozelean amaitu zuen.

Leiztan bertiz, gaur egongo du gofidaldiak Martxak, 20:30ean. Bertan, Lehenik harrera ekitaldia egingo da herriko plazan; dantzarik, Jeki Abesbatza eta bertsoarik izango dira. Ondoren, testigantza liburuan osatuko dute herriko emakumeen aldarrikapen ezberdinek.

ALDARRIKAPENAK

Lau

- Emakumeek jasaten duten prekaritatearen aurka.
- Emakumeen aurkako indarkeria aurka
- Eskubide sexual eta erreproduktiboen aldarria.
- Ibilbide naturalen pribatizazioaren aurka.



Tolosako emakume arraunlariak eraman dute Emakumeen Mundu Martxaren lekuko Zerkausira. AGERIAKAZ



Mundu Martxa igaro den euskal herri guztietan bezala, Tolosan ere, aldarri bat jarri zuten panelaen aurrean. AGERIAKAZ

»» EKITALDIAK

Aduna
• **Bihar, hilak 13.** Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospatzeko afaria egingo dute 21:00etan, Adunako Ostatuan.

Albiztur
• **Gaur, hilak 12.** 21:00etan, afaria Tolosako Amets jatean. Ondoren Jone Gonsasturu eta Olatz Etxeberriaren bakarreko iketa saioa.

Iruia
• **Gaur, hilak 12.** Loazio musika eskolakoan saioa 18:00etan, Musika Eskolako areto nagusian.
• **Bihar, hilak 13.** Film emanaldia gastelekuetan. Bestetik, 20:30ean afaria eta ondoren dantzaldia Zaharren bitokian. Txarrelak Zaharren bitokian bertan erosi dabilteke osteguna bitartean, 15 euroen truke.

Leizta

• **Gaur, hilak 12.** 16:30ean biokulak plaza. Egun guztian zehar eskualdeko aldarrikatutako bilduko duen murala pintatzen egongo dira plaza. Arratsaldean herriko hara eta gasteleku murala margotzeko aukera izango du. 20:30ean aileguko da Mundu Martxa Leiztara, eta harrera ekitaldia egingo da. Herriko plazan dantzarik, Jeki Abesbatza eta bertsoariak izango dira. Honez gain, testigantza liburuan osatuko dute herriko emakumeen aldarrikapen ezberdinek. Ondoren, Atekalbertza gaztetxean afaria egingo dute. Sarterak, Torrean eta Gastelegoan egingo dira salgai 10 euroren truke hilaren 10a bitartean. Gauetan, korritzeak egingo dira. Komu-tu eta talde sorpresa.

Tolosa

• **Bihar, hilak 13.** 12:00etan Iruhean manifestazio nazionala egingo dute. 09:00etan Santa Klara paretik abiatuko da autobusa.

Ugarte

• **Bihar, hilak 13.** Baskaria egingo dute Ugarterko elkartean 13:30ean.

Villabona

• **Bihar, hilak 13.** 12:00etan Berdulo Plaza aldiakak. Iratze eta Astelekuaren bitartean, Baskaria jasan nahi duenak 16 euro ordaindu beharko dituzte.

Zizurkil

• **Gaur, hilak 12.** Dantza garaikideko emanaldia Abulondor, 20:30ean. Hiru balaitari: Iker Arriue, Anuska Alonso eta Gorko Longe.

• **Hilak 20, larunbata.** Emakumeek zuzenduriko autofelentzia ikastaro trinkoa egingo da. Egun guztiko iraupena izango du, orduetako ondorengo izango da 10:00etatik 14:00etan, eta 15:30etik 19:30ea. Maitena Monroy izango da irakatslea.



Gizonek bazkaria prestatu zuten

GAZTEK Emakumearen Nazioarteko Egunaren bezperan, martxoaren 7an, Erriozko Azpiko kiroleta kultur elkarteak gastelekuo harrak gizonek «kategorizko bazkaria» prestatu zuten gerturatu ziren emakumeentzat. Giro aparta edukiratu zuten eta amariaren emakumeen artean oparirako bat zoiztatu zuten. HIRAZ

Elkarrizketa

XABIER SAIZAR Entrenatzailea



«Emakumeak korrika jartzea da 'Heuk proba ezan' ekimenaren helburua»

Tolosa » Usabal kiroldegian aldatu eta Berazubira, Bertan Xabier Saizarek esandako beroketarik egin eta korrika kalera; eskualdeko hainbat emakumeen ohitura da.

Gipuzkoako herri desberdinetan monitore batzuk jarri ginetuzten eta emakume bati herriaren inguruko korrika egiteko erabariak erabakiak izan ziren. Korrikariak erabatu behar izan ziren eta hainbat herriaren inguruko korrikariak erabatu behar izan ziren. Korrikariak erabatu behar izan ziren eta hainbat herriaren inguruko korrikariak erabatu behar izan ziren.

batekin 30-40 minuterako saioa egingo du eta besteekin ordu bateko saioak egingo ditu. Korrikariak erabatu behar izan ziren eta hainbat herriaren inguruko korrikariak erabatu behar izan ziren.

Xabier Saizar (Ibarra, 1982) Heuk proba ezan ekimeneko monitore bat da baina...
Zer da 'Heuk proba ezan'?
Luz Donostiako Club Deportivo Fortunak sortutako ekimen bat da.

«Hasieran gogorra egin zitzaidan baina gero engantxatu egiten du»

GORETI AGIRRE 'Heuk proba ezan' ekimeneko partaidea

Tolosa » Izena eman orduko San Silbestreran iritea tokatu zituzten; Liñatzairen esperientzia ere gertutik bizirik dute.

Lehenago bilzen al zinen atletismoa edo korrika?
Ez. Bat ere ez.
Nola egokitu zara ekimenera?
Ezer guri gabe denbora asko eman ondoren, hasieran gogorra egin zitzaidan, Gero berriz engantxatu egiten zina.

Proba batzuen eta parte hartu duzue, 'Honekin Estilat' babeste duzue gainera.
Apiratuti eta egidien San Silbestrerako kamisetariekin etorri ziren, babeste eta guzti beraz. Gero Liñatza etorri zen eta bertan jasan ginen. Oro ondorengoan, giro polita eta gustura ibili ginen.
Emakume bezala ere berezia izango oen, ezta?
Bai. Hainbeste emakume elkarrekin bustea asko gatzatu zitzaidan, niretzat oso positiboa izan zen.



«Ez nuen uste Liñatoia horrelakoa izango zenik, ezustekoa izan da»

IZASKUN EZEIZA Liñatoko korrikalaria

Tolosa » Liñatoia emakumeen laisterketa herrikoa da, Donostian elhunika lagun elkartu ziren martxoaren 7an.

Nola bizitu zenuen eguna?
Zoragarria izan zen: giroa, emakumeak... Polita, beteketa. Herriko beste emakume elkarrekin denak baretzeko oso hunkigarria izan zen. Liñatoia berabizi berezia da, oso polita.

Ibilbidea gogorra al da?
Batekin kilometroko da baina musikarekin, jendarekin... pasatu bat bezalakoa da. Gero, hiltalde bezala egingen dira: batzuk marra egitera josten dira eta besteek gure buruaren inguruan dagoen. Atera naiten lehen aldia izan da eta ez nuen uste horrela izango zenik, ezustekoa izan zen.

Aurreko korrika ibili al zara?
Bat ere ez. Liñatoia prestatzeko hildakotzat erabakiak izan ziren. Tolosako Liñatoia prestatzeko hildakotzat erabakiak izan ziren. Tolosako Liñatoia prestatzeko hildakotzat erabakiak izan ziren.



Lolilako negoziatioz prozesuaren kronika

Prozesuaren kronika eta zuzen egiten du Berriaren proiektuaren kronika. Lolilako negoziatioz prozesuaren kronika. Lolilako negoziatioz prozesuaren kronika.

eskaintza berezia
BERRIaren eskutik
15€
Egin eskaintza eta etxean jasoko duzu
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30-43-45
berria

Jangeletako langileen %83k greba egin du

Hezkuntza » 11. greba eguna izan zuten atzo; gaurko bileran adostasunik ez bada, hilaren 15 eta 17an ere greba egingo dute.

ERREDAKZIOA

Beste behin, eta aste honetan bigarren egunez, gure herrietako kudeaketa zuzeneko eskola publiko-eta jangeletan lan egiten duten langileek greba egin zuten atzo. LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek deituta. Lanuzteekin jasaten ari diren egoera salatu nahi dute eta atzokoa hamaikagarren greba eguna izan zen.

Langileek, hilaren 9tik aurrera, asteko bi egunez, greba mugagabeari ekin diote. Pasa den asteartean jada hamargarren greba eguna izan zuten eta atzo bigarrena. Lehen egunean, %80ko erantzuna izan zuten eta atzokoa berriz, %83koa.

Eskualdeko eskola batzuetan normaltasunez eman zuten zer-

baitzua, baina beste batzuetan grebak izan zuten eragina. Villabonako Fleming herri eskolan, esaterako, egunero bazkaltzen duten 340 ikaslek ezin izan zuten eskolan bazkaldu atzokoa.

Eskolako Lehen Hezkuntzako 151 ikasle eta Bigarren Hezkuntzako 199 ikasle erabiltzen dute jangela zerbitzua. Atzokoa, Amasako bederatzik ikasleei baino ez zuten eman bazkaria.

«Aldarrikapena zerbitzua hobetzeko helburuarekin»

Jangeletako langileek «jangela erabiltzen duten gurasoen seme-alabek jasotzen duten zerbitzua hobetzeko helburuarekin egiten da» argitu dute.

Lau puntutan egiten dute aldarrikapena. «Txostenak lantzeko, tutoreekin hitz egiteko... lanaldia luzatzea eskatzen dugu». Bestalde, «berariazko etengabeko presakuntza izan dezagun lehen laguntzaz, dietaz, alergi... eta baita oraingo ratioak jaitsiz atentzioa hobetzea eskatzen dugu». Azke-

nik, «saileko sukaldeko langileekin parekatzea eskatzen dugu». Guztira 3.500 langile dira eta jakin badakite, zer nolako eragotzen sor ditzaketen greba hauekin. Baina gatazkak guztiei eragiten diela konturatzea nahi dute eta «guztiak elkartzuz gero eta presioa egin, irtenbidera lehenago iritsi daitezkeen esan dutenez, «langileengatik eta gure seme-alabengatik» daude greban eta arazoaren arduradunak «Lakua eta Eusko Jaurilaritz» direla argitu dute.

«Gatazka desblokeatzeko eta negoziatzeko» bilera

Sindikatuaren arabera, «eskola publiko-eta jangeletan zerbitzu zuzena ematen duten enpresek bilera deialdia luzatu dute». Sindikatuak «gatazka desblokeatzeko eta negoziatzeko» helburuarekin joango dira bilerara.

Lakuak eta patronalak jarrera aldatzea espero dute eta hala ezean, datorren astean, hilak 15 eta 17, berriz ere greba egingo dute.

Tolosan eta Ibarren jardunaldi independentistak

ERREDAKZIOA

Tolosako eta Ibarren gazteek jardunaldi independentistak burutuko dituzte bi herrietan zehar bihar. *Goazen independentziara* lelopean egingo dituzte eta independentzia izango da, hain justu, gazteek ekin-tza ezberdinen bitartez landuko duten oinarriko gaia.

Egitarau zabal prestatu dute horretarako eta goizetik hasi eta gauera bitarteko ekitaldiak izango dira. 11:00etan *Kedada* Triangulon egingo dute eta independentzia-

ren inguruko eztabaida izango dute. 14:00etan, bazkaria egingo dute eta txartelak, Raku, Denak eta Atari tabernetan daude 6 euroren truke. Bazkalostean, Plaza Berriatik abiatuta, 17:00etan, Triki-poteoa egingo dute. 18:00etan Herri Kirol alternatiboak (Ibarra-Tolosa) egingo dituzte Ibarren plazan. 20:00etan afaria izango da, Ibarren Gaztetxean bertan bokatak erosteko aukera izango delarik, eta 22:00etan, Dj Independece-ren musika izango da.

Saralegi eta Olazabal finalerdietan gaur

ERREDAKZIOA

Aldebatetik, Saralegi eta Eskudero bikotea eta bestetik, Olazabal eta Arruti bikotea Bigarren Mailako Binakako Txapelketako finalerdietara sailkatuta daude eta gaur jokatu dituzte lehen partidak.

Saralegi eta Eskudero bikoteak, Aritz Lasa eta Merinoren aurka jokatu du 22:30etik aurrera Urretxuko pilotalekuan. Aldiz, Olazabal eta Arruti bikoteak, Arretxe II eta Ibai Zabalen aurka jokatu du 20:00etan hasita Beasainen.

Laburrak

Alegiako Mendi Asanbladaren irteera

ALEGIA • Hilaren 14erako bigarren mendi irteera antolatu dute Mendi Asanbladako kideek. Autobusez joango dira 08:30ean abiatuta eta goizeko irteera bakarrik izango da. Oraingoan, Izazpera (996 metro) joango dira. Aginaga auzoa, Samiño, Izazpi eta Zumarraga zeharkatu dituzte. Guztiei irteerara joateko deia luzatu diete.

Festak antolatzeko bilera 19:00etan liburategian

IKAZTEGIETA • Aurtengo San Lorentzo Jaik antolatzeko bilera antolatu du Jai Batzordeak. Festak antolatzeko diru gutxi dagoela eta, herri-ritar guztien parte hartzea beharrezkoa izango dela adierazi dute. Herri-ritar guztiak gonbidatu nahi dituzte, gaur 19:00etan liburategian egingo den bileran parte hartzea.



340 ikasletik Amasako 9 ikasle baino ez zuten bazkaldu Villabonako Fleming eskolan. E. MAIZ

Hilberria

JOSE RAMON TOLOSA DORRONSORO

Jauna
(Potto)

Herenegun hil zen, 64 urte zituela

Bihar larunbata eguerdiko 12:00etan
Langurreko zelaian
omenaldi xume bat egingo zaio.

Alegiako Ezker Abertzalea



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



8°
4°

GOIZA EURIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 7°
HOTZENA 2°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

- **Villabona.** Gurea Zineman gaur Ausarta taldearen *Central Park West* antzezlan 22:00etan.
- **Tolosa.** Ahozketasunaren Jaialdiaren barruan gaur Amaratzen 18:00etan Ixabel Millet euskaraz eta Leidor aretoan 20:30ean Gabino Diego gaztelaniaz.

Zinema

- **Tolosa.** *Cheri* filma Leidor aretoan bihar 19:30ean eta astelehenean 20:30ean.

Dantza

- **Zizurkil.** Iker Arrue, Anuska Alonso eta Igor Calonge koreografo gazteen emanaldia gaur Atxulondo kultur etxean 20:30ean.

Bestelakoak

- **Villabona.** Hausnarketa eta ototzaldia Satorra parrokiako lokalean gaur 19:00etan, parrokiako espetxe pastoralak antolatutako jardunaldien barruan.
- **Ibarra.** Ibarrratik Misio Taldeak antolatutako afari solidarioa parrokiako lokalean 20:30ean.

Deialdia

- **Tolosa.** Ikasle Abertzaleak taldeak hezkuntza euskaldunaren aldeko manifestazioa egingo du gaur Triangulotik 12:30ean abiatuta.

Musika

- **Tolosa.** Naut, Luz de Putas eta Alambadaren kontzertua gaur Bonberenean 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz I. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.
- **Lekunberri.** Azpiroz M. A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Asel Luzarragaren egoera aztertu dute

TOLOSA ● Askapenak antolatuta Asel Luzarraga idazlearen bahiketari eta Maputxe herriari buruzko hitzaldia eskaini zuen Julen Zulaikak atzo Tolosako Kultur Etxean. Euskal idazlea pasa den abenduaren 31an atxilotu zuten Txileko La Araucania eskualdeko Justizia idazkaritzan lehergailu bat aurkitu eta gero. Eskualde horretako gobernadoreak bere

kontrako kereila jarri zuen eta epaileak onartu egin zuen auziaren hasieran. Prebentzio-espetxealdian izan da euskalduna eta une honetan 2008. urteko abendutik 2009. urteko abendura bitartean antzeko lehergailuekin burututako lau atentatuekin zerikusia izatea leporatzen diote, baina ez inolako kargu zehatzik. **E. EZIZEA**

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behe
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behe • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>